

## **“Aukera berri eta ebanjeliko baten aurrean dago Eliza: muina landu eta azaleko eransketak kentzearena”**

Kristau izatea, aukera pertsonal bat izanik, Jainkoak ematen digun dohaina da. Ez da, beraz, gure borondate eta ahaleginen lorpen hutsa fededun izatea. Halere, aukera pertsonal hori ezin da bakarka bizi. Beti norbaiten beharra izango dugu: gure bilaketan eta gure lorpenetan. Hasieratik Jesusi jarraitzeko bidea ez da inoiz bakarka egin, taldean baizik, elkartean. Fededunok taldean elkartzen garen bilkura hori, batzar hori da Eliza, “eklesia”, lehenbiziko kristauek hala deitu zioten bezala.

### **Nolako da Eliza eta gaztearen arteko harremana gaur egun?**

Bien arteko harremanetan sartu aurretik ezinbestekoa egiten zait bat eta bestea deskribatzea: nor den eta zertan ari den. Jesusen jarraitzaileen taldea, Eliza, aspaldian herdoilduta dabil: urtetan hain garrantzizkoak izan diren elkarteen tresnak eta gizartearekin bat egiteko bideak ez dira, itxuraz gaur egun, baliogarriak: elizaren irakaskuntza, igandearen garrantzia, fedearen transmisioa, eukaristiaren beharra. Urteek eta okerreko botereak emandako pribilegio tokia eta garrantzi soziala galdu egin du eta egoera desberdin eta korapilatsu hau krisi demontre bezala bizitzen ari da elizaren barneko egituretan. Herdoiltze honek Elizari aukera berri eta ebanjelikoa eskaintzen dio: muina landu eta azaleko eransketak kendu. Gaztea deskribatzeko lehenbizi oinarritzko zerbait argitu behar da: gazteak deskribatzen dituztenak helduak dira, ez dira, hain zuzen, gazteak dagoeneko. Honek sortzen duen distantzia ideologiko eta existentziala da elizaren eta gazteen arteko eten handi horren arrazoietakoa bat. Beste batzuk ere gaztetasunaren oinarrian daude: gazte izatea luzatu egin da eta bere izatearen helburuan urrun ikusten da konpromiso baten lotura, erabakiak hartzeko beldurra, etab... Gazteari Elizako partaide izateko jartzen zaion ezinbesteko baldintza bere gaztetasunari uko egitea da askotan. Kristau izatea heldu izatea da, gauzak garbi edukitzea. Eta nortasun honetan ukapen arriskutsu bat dago: gazteari gazte ez izaten uztea. Bien arteko harremana ez da, begi-bistan, nahi genukeen onena.

### **Zerk urruntzen du gaztea Elizagandik? ala Eliza gazteengandik esan beharko genuke?**

Betiko galdera, baina, ausardiaz galderari galdetzaileari buelta ematen zaion bezala erantzuten saiatuko nintzateke. Ez da hainbeste gaztea edo, orotar, gizartea Elizatik urrundu dena. Eliza eta bere egitura esklerotikoak dira mugitu ez direnak: zahartu egin garelako, datozenekin gehienetan konformatzen garelako, aukeratuak garenon kontzientzia arriskutsu batean erortzeko mugan gaudelako, fededun gutxi batzuen aukera den aitzakiarekin horretan burgestu garelako, gure ezina onartzeko prest ez gaudelako,... baloiak kanpora botatzen ditugu eta errua kanpoan dagoela pentsatzen dugu edo pentsatu arazi nahi digute behin baino gehiagotan. Noizbait gairitu beharko dugu arazoa eta konponbidea ez dagoela Elizatik at, barnean, barneko egitura eta ohiturakerietan baizik.

Eliza, ziurrenik nahigabe, urrundu egin da: bere hizkuntzan, bere egitura bertikaletan, emakumeari eta aukera sexual desberdinak egiten duten pertsonak mespretxatuz, barne-demokrazia bideak itxiz eta, gehienbat, nahigabez elkartearen zahartzaroz. Jendeak eta gazteek sumatu dute, jabetu dira ebanjelioaren iturria ez dela elizako lau hormetan bakarrik aurkitzen. Eliza da, une hauetan, iturri berri horien bila atera behar duena eta Jainkoa etengabe ematen ari den dohain aberats horiek elkartearen erdi-gunean jarri. Eliza berritzeko ebanjelioaren freskotasuna kanpotik ekarri beharko da, barnean berritzeko eta sortzeko gai ez bagara.

**Garai hauetan gaurkotasunekoak diren gaiekin arduratzen dira gazteak. Elizak hauekiko duen jarrerak ez datoz bat gehienetan gazteen ikuspuntuarekin (gay-lesbianen kasuan, abortuaren kasuan, ama zelulen ikerketen kasuan). Ados al zaude baieztapenarekin? Zein da Elizaren doktrina ofiziala gai hauekiko? Nola ikusten du edo ikusi beharko luke distantzia hau Elizak?**

Lehenik eta behin, iruditzen zait Elizaren erritmoa gizarte honetako izan arren, bertakoei bat egiteko saiakera korapilatsu honetan, modernitatearen lehian... Jesusen eta Berri Onaren iragarle izan behar duela Elizak. Herriko bihotza. Ez luke besteen erritmoarekin bat egin behar besterik gabe. Politikoki hori zuzena delako, egoki geratzen delako, iritzi publikoa konformatu nahian. Baina honek ez du Eliza zaputuz eta zoritxar-igarle bihurtu behar, ilunpetan argi, etsipenetan itxaropen sortzaile, korapiloetan bake artisau eta egokitasunaren diplomazian aske, baizik: Berri Onaren iragarle, behartsu eta baztertuen defendatzaile leiala. Hemen eta ez handikerietan, beharra dutenekin eta ez itxurakerietan neurtuko da gure agintea: esaten duguna eta egiten duguna biak bat egiten saiatzen garelako. Galdera zehatzari erantzunez ezin dira, ez ditugu denak zaku berean sartu behar. Bakarka eta kasu bakoitzari pertsonaren egoerari erantzuten saiatu ezker erantzun aske eta ebanjeliko bat emango genuke. Orokorrean, halere, badira inongo ez bairik gabe onartu behar ditugunak: gay eta lesbiana elkartean onartzeaz gain, errespetatzeaz gain gurekiko egin eta euren ahots isilduari tokia eman behar diogu. Gaitasun horretan gure hitzak eta ekintzak elkartuko ditugu. Esan eta bete beldurrik gabe.

**Garrantzi handia ematen zaio Elizak moralaren gora beheretan adierazten dituen iritziei. Halere badira zenbait eguneroko gai gazteen kezken artean badirenak, etxebizitza, bakea edo ingurugiroa kasu. Zein da Elizaren ikuspuntua? Ez al luke lan eta kritika soziala gehiago suspertu behar?**

Morala ez da, gehienetan pentsatzen dugun bezala, sexuarekin gertatzen diren komeriarekin zerikusi bakarra duen kontua. Badirudi gerritik beherako morala dela interesgarria bakarrik. Morala kristau bizitzaren erabilera da: bizitza bera, hitzak ekintza bihurtuak. Elizaren Irakaskuntza Soziala oso aberatsa da alderdi horretan: lan fin eta askeak ugari izan dira kristautasunaren morala gizartean bizitzeko garaian: kapitalismo itsuaren gaitzespena, gerraren kontra, behartsuenekiko babesa, langileen eskubideen begirunea, eta abar luze bat Elizaren dotrina sozialaren historia luzean. Baina pertsonaren moralean oraindik jarrera kamutsak eta ebanjelikoaren aurkakoak hor jarraitzen dute kristau oinarriaren bandera gisa. Elizak, batetik, gaur egun gizarte politikoan duen garrantzia ikusiz eta, bestetik, gizabanakoaren eguneroko bizitzan duen eragin eskasaz jabeturik, kristau moralak

gizabanakoaren bihotzera eta bizitza zehatzera joan beharko du. Elizaren diskurtsoa aldatu behar da.

Hori bai, Elizak jabetu beharko du gizarte politiko, ekonomiko eta sozialarekiko eragina ez dela gaur egun, ezinbestekoa, erabatekoa. Beste batzuen arteko leian Elizak bere tokia, bere gune etikoa bete beharko du esandakoa betez eta kritika sozial askea jorratuz.

**Nolanahi ere zenbait gazte eroso aurkitzen dira gure ingurunean kristau elkarteetako astialdi-eskaut taldeetan. Zergatik dela uste duzu? Gazte taldeak eta kristau izatea uztartzerik ba al da?**

Lehenik eta behin gustura aurkitzen dira astialdi-eskaut taldeetan Elizak gazteari protagonismoa eman diolako, tokia egin diolako. Hitza eta ardura eman diolako. Astialdiaren metodologiaren bidetik ekintzaren pedagogiaren lorpen hau, gertakizun teologiko bat izan da eta gertatzen ari da gure kristau elkarten baitan.

Elkarteetako kristauok honetaz jabetu behar dugu eta eramandako ardura honi zor zaion esker-ona azaldu nonahi.

Neroni astialdiarekin jasotzen ari naizen esperientzia, Berri On bat gertatzen ari zait. Zenbat ikasteko, zenbat ikusteko, zenbat erakusteko duen Elizako hainbat kristau eta apaizek honen inguruan. Nola esan, nola iragarri astialdiaren esperientzia 21. mendeko gizarte eta elizarentzat Berri Onaren freskotasuna eta gaurkotasuna adierazten duen esperientzia bat dela!...

Era berean, hara hemen azaltzen zaigu, gure erronka: astialdia plataforma ebanjelizatzailea al da? Ebanjelioari tokia eginez, gaztearen izatea kontuan harturik, elkarte izateko oinarriak eraikiz, kristauoi zor zaigun protagonismoa emanaz, gazteekiko baldintzarik gabeko aukera eginez... ez da, behar bada, Ebanjelioarekiko erantzuna ziurtatzen, ez da, nolabait, Elizarekiko atxikimendua tinkatzen. Baina, hori al da gure helburua, gure zeregina? Ez da gure misioa Jesusekiko aukera egiaztatzea, bide zoragarri horretan lagunduz ateak irekitzea, baizik. Halere, historia honetan bidea elkarrekin egin dugunok badakizue ez dagoela osotasun handiagorik Jesusi jarraitzea baino. Beraz, bai, biak egin ditzakegu, egin behar dugu: kristau eta gazte izatea.

**Egungo Eliza eta gaztea elkarrengandik urrun daudela badiogu ere Aita Santuak gazteengana adierazitako gertutasunak hurbildu dituela diote behin eta berriz komunikabideetan. Hala iruditzen al zaizu?**

Ez, ez nago batere ados. Aita Santua gazteekin edo gazteak Aita Santuarekin egon diren bakoitzeko arrotz sentitu naiz ikuskizun horietatik kanpo. Vatikonoko Elizako liturgiaren baitan dago gazte domestikatuak erakartzea eta guzti horiekin halako "auto sakramental" bat egitea irudi gaurkotuak, mezu motz eta itxuraz erakargarriak plazaratuz. Guzti horien aurka nago bi arrazoiengatik: bat, ez du adierazten gaur egungo errealitatea gazte eta elizaren arteko harreman korapilatsu honetan eta bigarrena, ez da hori ebanjelioa iragartzeko, bizitzeko gunea: dirua, boterea, eskenatoki triunfalak, kritikotasunik gabeko papolatria, zaletasunaren handigura produktu gisa.

Komunikabideak ezinbesteko baliabide izanik Eliza baten irudi hermetiko eta esaneko baten irudi oker bihurtzen dira. Eta honekin urrezko aukera bat galtzen da: ez gara katolikoak, hau da, batasunaren bila gabiltzan kristauak Aita Santu batek



Plaza Nueva, 4 - 3º  
48005 BILBAO  
I.Z.P. / C.I.F.: G 48231575  
Tfnoa: 94 479 59 91  
Faxa: 94 416 97 98  
E-mail: [goitibera@barria.net](mailto:goitibera@barria.net)  
[www.barria.net/goitibera](http://www.barria.net/goitibera)

biltzen gaituelako, Jainko Aita-Ama berak senide egiten gaituelako. Horregatik esan dute Juan Paulo II.a hil denean "umezurtz utzi gaituela", Eliza irudi baten inguruan jartzen delako eta ez Jesusen eta txiroen inguruan. Hara hemen neurria... hemen gure aukera eta, era berean, geure bekatua: aukera galdua.

**Juan Kruz Mendizabal  
Apaiza**